

2026/2027 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da otsailaren 2tik 13ra (biak barne) izango dela 2026-2027 ikasturterako 2 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurrematrikulatzeko epea. Matrikula eskaera egiteko hitzordua hartu beharko da [galdetegi hau](#) betez.

Bestalde, **bihar, urtarrilak 24**, larunbata, **10:00etan** eta **11:30ean**, **ATE IREKIAK** izenez ezagutzen den saioa izango dugu. Agerialde eraikineko jolastokian (Alperroburu, 5. zk.) elkartuko gara. Bertan, ikastolako funtzionamendua azalduko dugu eta ikastolan zehar ibiliko gara eraikuntza ikusiz (haurrekin etor zaitezke). **Bertaratzeko interesa duenak, izena eman beharko du [galdetegi hau](#) betez. Anima zaitezte!**



Baxoa euskaraz

Larunbat honetan arratsaldeko 15:00etan Baionako Xaho kaian euskararen aldeko manifestaldian parte hartzeko gonbitea egiten zaio Ikastolen komunitateari . [Hemen informazioa](#)



Aste oso bat, euskararen munduetan barna, familian

2025eko udaberrian Euskal Herri mailako familia egonaldi ibiltaria antolatu zuten eusalgintzan diharduten hainbat erakundek (AEK, Dindaia, Ebete, Plazara eta Uda Leku).

Edizio pilotu haren arrakasta ikusirik, 2026an esperientzia berri eta hobetua dakarkite.

Haur eta helduen euskara maila hobetzea eta familiako hizkuntza ohiturak aldatzea helburu, 3 egonaldi antolatu dituzte data ezberdinetan.

Egonaldi hauetan goizetan gurasoak klasean euskara ikasten eta haurrak josten arituko dira; arratsaldetan ekintzak izango dira euskaraz haur eta heldu artean eta iluntzetan gaubeilak eta animazio goxoak izango dira.

Informazio gehiagorako jo ezazue www.plazara.eus/familia-egonaldia/ gunera.

Izena emateko epea: urtarrilak 30, ostirala.



MANGA tailerra

Gaur, arratsaldeko 17:30ean, Sutegi Liburutegian, MANGA TAILERRA II eskainiko da LH4tik gorako gazteentzat. Izen ematea, Liburutegian bertan. Hemen [horma-irudia](#)



HAUR HEZKUNTZA

Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera ospatuko dugu, beraz, ahal duzuenean **makila** ekartzea komeni da, **entseguekin hasteko**.



Zorriak

HH 3ko eta HH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LEHEN HEZKUNTZA

Zorriak

LH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera ospatuko dugu, beraz, ahal duzue nean **makila** ekartzea komeni da, **entseguekin** hasteko.



BIGARREN HEZKUNTZA

DBH4 txertoa

Gogorarazten da, datorren asteartean, **urtarrilaren 27an**, baimena eman zuten ikasleei txertoa emango zaiela:

- Ikasle guztiei, **Difteria-Tetanos-kukutzeztularena**
- Mutileei, **GPBarena (papilomabirusa)**

